Arizmendi ikastola

Arrasate Herri Eskola

Mesedeetako Andra Maria IKASTETXEA

54. alea

2008-Azaroa

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN




1., 2. eta
3. maila

# GURE BURUA EZAGUTZEN

# NOR NAIZ NI?



**Pertsonok ezberdinak gara gure artean; bakoitza bere berezitasunekin, bakarra eta errepikaezina.Baina denak zoragarriak**

## Nire ezaugarrien bila

Bilatu irudi hauetan:

- Zuk bezalako irribarrea duena
- Zuk bezalako ilea duena
- Zuk bezalako begiak dituena
- Zure antza duena




## Eta zu nolakoa zara?

..........................................................................................

..........................................................................................

..........................................................................................

..........................................................................................

Arrasateko haurrek gustu ezberdinak dituzte, Gorkari kalean klarionekin marraztea gustatzen zaio, Aixak lagunekin futbolean ibiltzea nahiago du eta Mikelek Liernirekin sokasaltoan arratsaldeak disfrutatzen ditu.

## Niri Zer Gustatzen Zait?

# AUTOERRETRATUA



MARRAZTU ZURE BURUA,

GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUN HORI EGITEN



Zer gustatzen zait etxean?



Zer gustatzen zait lagunekin nagoenean?



Zer gustatzen zait gurasoengandik?



Zer gustatzen zait ikasgelan?

## Nolakoa da Nire Familia?



# ARTISTEN TXOKOA

Irakaslearen laguntzaz ikasgelako "zuhaitza " sortuko duzue mural batean.

Materiala: murala egiteko papera. Temperak. Kola. Artaziak.

Prozedura: Zuhaitz bat margoztuko dugu (hobe da irakasleak aurretiaz zuhaitza eginda badarama). Zuhaitzaren adarrak gelako haurren kopuru bera izan beharko dira. Adar bakoitzean haurrek aurreko ariketetan egindakoa moztu eta itsatsiko dute (beraz espazioa utziko dugu adarren artean guztia itsatsi ahal izateko). Erabiliko ditugun ariketak:

- Eta zu nolakoa zara?
- Autoerretratua

Lehenik eta behin, zuhaitza guztion artean koloreztatuko dugu: adarrak, emborra eta sustraiak (egin badizkiogu). Gero esandako ariketak moztuko ditugu eta haur bakoitzak bere adarrean itsatsiko ditu. Murala gelan eskegi dezakegu.

# HELDUEN TXOKOA

***Zer da identitatea?***

*Norberak daukan izatearen kontzientzia.*

***Nola eraikitzen da identitatea?***

*Inguruak nitaz bidaltzen didan informazioa eta nik nire buruaz pentsatzen dudana lotuz. Nork bere buruaz ezagutza osoa izanik eta esparru hauek sartzen direlarik: gorputza, afektibitatea, ezagutza eta soziala.*

***Zer da sexu identitatea?***

*Norberak bere sexuaren kontzientzia izatea .*

***Zer da genero identitatea?***

*Norberaren gizartean sexuen kategorizazio dikotomikoaren arabera jasotzen duen informazioagatik, gizona edo emakumea izatearen kontzientzia.*

***Nondik dator informazioa genero identitatea sortzeko?***

*Gizartean dauden estereotipoetatik; familiaren baloreetatik; modan dauden ereduetatik; liburu eta komunikabideetan erakusten diren bizimoduetatik.*

***Zergatik hezkidetza?***

- *Diskriminazio ezan oinarritutako hezkuntza delako.*
- *Pertsonengan eta ez generoetan oinarritutako hezkuntza delako.*
- *Gaurko rol eta estereotipo baztertzaileak apurtzen dituen hezkuntza delako.*
- *Sexuen gainetik gure gaitasunak garatzen laguntzen duen hezkuntza delako.*
- *Identitate zabalak eraikitzeko bideak errazten dituen hezkuntza.*

***¿Que es la identidad?***

*La conciencia que cada cual tiene de sí.*

***¿Cómo se construye?***

*Asociando la información que me llega del exterior y cómo me voy viendo, creando un conocimiento completo sobre mi y teniendo en cuenta aspectos del cuerpo, la afectividad, el conocimiento y lo social.*

***¿Qué es la identidad de sexo?***

*La conciencia que cada cual tiene de su sexo.*

***¿Qué es la identidad de género?***

*La conciencia que vamos construyendo de ser hombre o mujer según la informacion que recibimos de nuestra sociedad sobre lo que es ser una cosa u otra.*

***¿De dónde recibimos la información para desarrollar la identidad de género?***

*De los estereotipos que hay en la sociedad, de los valores de la familia,de los modelos que estan de moda, de los estilos de vidad que aparecen en libros y medios de comunicación, de los contenidos que se trasmitenen en la educación...*

***¿ Por qué Coeducación?***

- *Porque es educación basada en la no discriminación.*
- *Porque es una educación basada en las personas y no en el género de éstas.*
- *Porque es una educación que rompe con los roles y estereotipos discriminatorios.*
- *Porque es una educación que impulsa el desarrollo íntegro de nuestras capacidades al margen del sexo.*
- *Porque es una educación facilitadora de identidades no determinadas y plurales, fuera de la categorizacón dicotómica de nuestro sistema.*

Koordinatzailea:

urtxintxa
OSKOIA

Babeslea:

ARRASATEKO UDALA